

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

PASAIKO UDALA

Errentak

*Iragarkia*

Jendaurrean jarrita egoteko arauzko epea amaitu da, eta inork ez du erreklamazio edo oharrik aurkeztu. Horregatik, 2022ko maiatzaren 31n Zerga Ordenantzei buruz hartu zuen erabakia irmo eta behin betiko bihurtu da.

08. Ordenantza udal jabari publikoaren erabilera pribatibo edo ustiapen bereziagatik ordaindu beharreko tasak arautzen dituena.

03. Jabari publikoen erabilera pribatiboa.

% 100eko hobaria onartu da ostalaritza- eta jatetxe-sektore-rako terrazak eta mahaitxoak jartzeagatik tasan, Covid-19aren osasun-krisiak eraginda, 2022ko urtarrilaren 1etik 2022ko apirilaren 30era bitarteko aldiari.

Hori guztia uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Ogasunei buruzkoak, 16.4 artikuluan agindutakoa betez ematen da argitara, denek jakin dezaten eta aipatutako aginduan aurreikusitako gainerako ondorioetarako.

Aipatutako Foru Arauak 18.1. artikuluan xedatzen duenarekin bat, interesdunek administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango dute Zerga Ordenantzaren aldaketak onartzen dituen erabaki horren aurka EAeko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan. Horretarako, bi hilabeteko epea izango dute, aipatutako erabakia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita.

Dena dela, eta aipatutako aginduak baimentzen duen moduan, administrazioarekiko auzi-bideari ekin aurretik, interesdunek, nahi izanez gero, Gipuzkoako Foru Auzitegi Ekonomiko Administrazioan erreklamazioa jarri ahal izango dute hilabeteko epean, argitalpen hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den hurrengo lanegunetik kontatzen hasita.

Pasaia, 2022ko irailaren 16a.—Izaskun Gómez Cermeño, alkatea. (5807)

AYUNTAMIENTO DE PASAIA

Rentas

*Anuncio*

Transcurrido el plazo de información pública reglamentaria sin que se haya presentado reclamación u observación alguna, se ha elevado a firme y definitivo el acuerdo adoptado por el Pleno Municipal en fecha 31 de mayo de 2022, relativo a Ordenanzas Fiscales.

08. Ordenanza reguladora de tasas por la utilización privativa o el aprovechamiento especial del dominio público local.

03. Utilización privativa dominio público.

Se aprueba una bonificación del 100 % en la tasa por instalación de terrazas y veladores para el sector de la hostelería y restauración motivada por la crisis sanitaria del Covid-19 para el periodo comprendido entre el 1 de enero de 2022 al 30 de abril de 2022.

Todo ello se publica en cumplimiento de lo ordenado en el artículo 16.4 de la Norma Foral 11/1989, de 5 de julio, Reguladora de las Haciendas Locales de Gipuzkoa, para general conocimiento y demás efectos previstos en el expresado precepto.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 18.1 de la citada Norma Foral, contra el expresado acuerdo aprobatorio de modificación de las Ordenanzas Fiscales, los interesados podrán interponer recurso Contencioso-Administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses contados a partir del siguiente día hábil al de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

Elo no obstante y como autoriza el precepto citado, los referidos interesados podrán interponer, con carácter potestativo y previamente a la vía Contencioso-Administrativa, reclamación ante el Tribunal Económico Administrativo Foral de Gipuzkoa en el plazo de un mes a partir de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

Pasaia, a 16 de septiembre de 2022.—La alcaldesa, Izaskun Gómez Cermeño. (5807)